

2018-19ko EPEa: OHIKO GALDERAK

(Eguneratua 2022ko apirilean)

1. 2018-19ko Enplegu Publikoaren Eskaintza argitaratzea
2. Parte hartzeko baldintzak
3. Prozesuan izena ematea
4. Kontaktua informaziorako

1. - 2018-19KO ENPLEGU PUBLIKOAREN ESKAINTZA ARGITARATZEA

Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian, 2021eko abenduaren 14an, 2018-2019ko Enplegu Publikoaren Eskaintzari buruzko Osakidetzako zuzendari nagusiaren ebazpen hauek argitaratzea aurreikusi da:

- **1472/2021 Ebazpena**, azaroaren 25ekoa, Osakidetzako zuzendari nagusiarena, zeinaren bidez 2018-2019ko Enplegu Publikoaren Eskaintzako **deialdiaren xede diren plazak zehazteko irizpideak ezartzen diren.**
- **1473/2021 Ebazpena**, azaroaren 25eko, Osakidetzako zuzendari nagusiarena, zeinaren bidez **Oinarri Orokorrak** onartzen diren, Osakidetzan estatutupeko lotura finkoa lortzeko 2018/2019 urteetan deitutako hautaketa prozesuak arautzen dituztenak.

Zein kategoria deitzen dira?

1472/2021 Ebazpena, azaroaren 25ekoa, Osakidetzako zuzendari nagusiarena, zeinaren bidez 2018-2019ko Enplegu Publikoaren Eskaintzako deialdiaren xede diren plazak zehazteko irizpideak ezartzen diren. Horren I. eranskinean, deialdiaren xede diren kategoria/lanpostu funtzionalak jasotzen dira.

2018-19ko Enplegu Publikoaren Eskaintzaren deialdiak bi multzotan argitaratuko dira:

2021eko abendua:

Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian, 2021eko abenduaren 14ean eta 15ean, 2018-2019ko Enplegu Publikoaren Eskaintzaren kategoria hauen oinarri espezifikoak argitaratzea aurreikusi da:

- EXP. FAMILIA-MEDIKUA-LMAT
- EXP. PEDIATRIAKO MEDIKUA-LMAT

- ERIZAINA
- LAN-OSASUNEKO ERIZAINA
- OSASUN MENTALEKO ERIZAINA
- FISIOTERAPEUTA
- EMAGINA
- OPTIKAN ETA OPTOMETRIAN DIPLOMADUNA
- LOGOPEDIAN DIPLOMADUNA
- TERAPEUTA OKUPAZIONALA

- GIZARTE-LANGILEA

- ANATOMIA PATOLOGIKOKO TEKNIKARI ESPEZIALISTA
- AUDIOPROTESIEN TEKNIKARI ESPEZIALISTA
- DIETETIKAKO TEKNIKARI ESPEZIALISTA
- DOKUMENTAZIO SANITARIOKO TEKNIKARI ESPEZIALISTA
- LABORATEGIKO TEKNIKARI ESPEZIALISTA
- ERRADIODIAGNOSTIKOKO TEKNIKARI ESPEZIALISTA
- ERRADIOTERAPIAKO TEKNIKARI ESPEZIALISTA

- ADMINISTRARIA

Kategoria horietan parte hartzeko eskabideak aurkezteko epea 2022ko urtarrilaren 25etik otsailaren 24ko 14:00ak arte izango da.

Noiz izango dira azterketak?

2021eko abenduaren 14an eta 15ean Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian deialdia egiten zaien kategorietako hautaketa-probak 2022ko maiatzetik uztailera bitartean egitea aurreikusten da. Informazio hori zabaldu egingo da, hautaketa-prozesuaren oinarri orokorretan adierazitako bitartekoen bidez.

2022ko apirila

2022ko apirilaren 4, 5, 6 eta 12ko Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian 2018-19ko Lan Eskaintza Publikoaren honako kategoria hauen oinarri espezifikoak argitaratu dira:

- ALERGOLOGIAKO FEM
- ANATOMIA PATOLOGIKOKO FEM
- KIRG. ORK. ETA DIG. APAR. KIRG. FEM
- AHOKO ETA AURPEGI-MASAILEKO KIRG. FEM
- KIRG. PEDIATRIKOKO FEM
- DERMATOLOGIA MED. KIRUR. ETA BEN. FEM
- EMERGENTZIETAKO FEM
- ENDOKRIN. ETA NUTRIZIOKO FEM
- GAIXOTASUN INFEKZ. FEM
- HEMATOLOGIAKO ETA HEMOTERAPIAKO FEM
- ETXEKO OSPITALIZAZIOKO FEM
- LANEKO MEDIKUNTZAKO FEM
- MEDIK. FISIKOKO ETA ERREHAB. FEM
- BARNE-MEDIKUNTZAKO FEM
- PREB. MEDIKUN. ETA OSASUN PUB. FEM
- NEFROLOGIAKO FEM
- NEUMOLOGIAKO FEM
- NEUROLOGIAKO FEM
- OBSTET. ETA GINEKOLOGIAKO FEM
- OFTALMOLOGIAKO FEM
- ONKOLOGIA MEDIKOKO FEM
- OTORRINOLARINGOLOGIAKO FEM
- OSPITALEKO PEDIATRIAKO FEM
- PSIKIATRIAKO FEM
- HAUR PSIKIATRIAKO FEM
- ERRADIODIAGNOSTIKOKO FEM
- ERREUMATOLOGIAKO FEM
- ANALISI KLINIKOKO FEMT
- OSPITALEKO FARMAZIAKO FET
- PSIKOLOGIA KLINIKOKO FET
- FARMAZIAKO FT
- ODONTOLOGIAKO FT
- ZAINKETA ARINGARRIEN FEM
- EPIDEMIOLOGIA KLINIKOKO FEM
- MEDIKUNTZA NUKLEARREKO FEM
- KSU-KO FEM
- BIOKIMIKA KLINIKOKO FEMT
- IMMUNOLOGIAKO FEMT
- OSPITALEKO ERRADIOFISIKAKO FEMT

- GOI MAILAKO TEK. JURIDIKOA
 - MANTENT. ETA INSTALAZIOETAKO GOI-MAILAKO TEK.
 - INFORMATIKAKO GOI MAILAKO TEK.
 - EKONOMIAKO GOI MAILAKO TEK.
 - ANTOLAKETAKO GOI MAILAKO TEK.
 - ADMIN. ETA KUDEAKETAKO GOI MAILAKO TEK.
 - ERGON. ETA PSIKOSOZIOLOGIAKO PREBENTZIOKO TEK.
 - EUSKARAREN NORMALIZAZIOKO GOI MAILAKO TEK.
 - SEGURTAS. ETA HIGIENEO PREB. GOI MAILAKO TEK.
 - MNT. ETA INSTALAZIOETAKO ERDI MAILAKO TEK.
-
- SUKALDARIA
 - INFORMATIKAKO TEKNIKARIA
 - ELEKTROMEDIKUNTZAKO INSTALAZIOETAKO TEKNIKARIA
 - INSTALAZIO ELEKTRIKOETAKO TEKNIKARIA
 - GIROTZE INSTALAZIOETAKO TEKNIKARIA
-
- ERIZAINZAKO LAGUNTZAILEA
 - FARMAZIAKO LAGUNTZAILEA
-
- ADMINISTRARI LAGUNTZAILEA ETA ERABILTZAILEEN ARRETA
 - LARRIALDIETAKO IBILGAILUEN GIDARIA
 - GARRAIO SANITARIOAREN GIDARIA
 - ZERBITZU OROKORRETAKO GIDARIA
 - MANTENTZE LANETAKO OFIZIALA
-
- ZELADOREA
 - ZERBITZUETAKO LANGILEA

Kategoria horietan parte hartzeko eskabideak aurkezteko epea 2022ko maiatzaren 3an hasi eta ekainaren 2an 14: 00ak arte luzatuko da.

Noiz izango dira azterketak?

2022ko apirilaren 4an, 5ean, 6an eta 12an Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian deitutako kategorietako hautaprobak 2022ko urria-azaroa bitartean egitea aurreikusten da. Informazio hori hautaketa-prozesuaren oinarri orokorretan adierazitako bitartekoen bidez zabalduko da.

2.- PARTE HARTZEKO BALDINTZAK.

Nork egin dezake Osakidetzako 208-2019ko hautaketa-prozesuan izena emateko eskabidea?

1473/2021 Ebazpenean eta dagokion deialdian izena emateko eskabideak aurkezteko azken egunean inskribatu nahi den kategoriaren oinarri espezifikoak jasotzen dituen ebazpenean ezarritako baldintzak betetzen dituen edozein pertsona.

Zeintzuk dira hautaketa-prozesuan parte hartzeko baldintzak?

Hautaketa-prozesuan parte hartzeko baldintzak Osakidetzako zuzendari nagusiaren azaroaren 25eko 1473/2021 Ebazpenaren 6.1 oinarrian zerrendatzen dira. Ebazpen horren bidez, Osakidetzan estatutupeko lotura finkoa lortzeko 2018. eta 2019. urteetan deitutako hautaketa-prozesuak arautuko dituzten oinarri orokorrak onartzen dira.

Funtsean, honako hauek dira:

a) Nazionalitatea: Europar Batasuneko edo Europako Esparru Ekonomikoko beste estatu kideren bateko nazionalitatea izatea, edo Europar Batasunak egindako eta Espainiako Estatuak berretsitako Nazioarteko Itunaren arabera, langileen joan-etorri askea aplikatu dakioken Estaturen bateko nazionalitatea izatea.

Atal horretan jasotzen da, era berean, onartuak izan daitezkeela aurreko paragrafoan aipatzen diren nazionalen ezkontideak, betiere zuzenbidez bananduta ez badaude, eta izangaiaren eta bere ezkontidearen ondorengoak, baldin eta bi ezkontideak ez badaude zuzenbidez bananduta, ondorengoak hogeita bat (21) urtetik beherakoak badira edo, adin horretatik gorakoak izanda ere, euren kargu bizi badira.

b) Adina: 16 urte beteta izatea eta nahitaezko erretiroa hartzeko adina ez gainditzea.

c) Titulazioa: Deialdian eskatzen den titulazioa izatea edo titulu horiek jasotzeko eskubideak aurkezteko epearen barruan ordainduta izatea.

Atzerriko titulazioen kasuan, homologazioa egiaztatzen duen egiaztagiria eduki beharko da, azaroaren 21eko 967/2014 Errege Dekretuan xedatutakoaren arabera, edo titulua ondorio profesionaletarako aitortzea, azaroaren 8ko 1837/2008 Errege Dekretuan xedatutakoaren arabera (otsailaren 21eko 103/2014 Errege Dekretuak aldatu zuen errege-dekretu hori), aplikatzekoak diren heinean.

Homologazio- edo aitorten-prozesuaren ondoren lortutako titulazioak geroago aurkeztea onartuko da, betiere homologazio- edo aitorten-eskabidea hautaketa-prozesu honetan parte hartzeko eskabideak aurkezteko epea amaitu baino lehen egin bada. Egoera horretan gainditu duten izangaiek eskatutako titulazioa egiaztatu beharko dute destinoak aukeratzeko epea amaitu baino lehen.

d) Gaitasun psikofisikoa: Destinoan normaltasunez jarduteko behar den gaitasun psikofisikoa izatea. Gaitasun hori egiaztatzeko, hautaketa-prozesua gainditu ondoren, azterketa medikoa egin beharko da horretarako zehaztuko den zentroan, eta baldintza hori bete beharko da lanpostuaz jabetu ahal izateko.

e) Diziplina-espeditente bidez osasun-zerbitzu edo administrazio publiko batetik bereizita ez egotea, enplegu edo kargu publikoetarako erabateko desgaiakuntza edo desgaiakuntza berezi irmoa ez izatea, eta adingabeekin lanbidean jardutea eragozten duen kausaren batean ez egotea, Adingabearen Babes Juridikoari buruzko urtarrilaren 15eko 1/1996 Lege Organikoaren 13.5. artikuluan xedatutakoaren arabera, eta Osakidetzako zuzendari nagusiaren urriaren 13ko 1314/2016 Ebazpenean ezartzen denaren arabera. Azken horren bidez Osakidetzako adingabeekin ohiko harremana izatea eskatzen duten lanpostuetan sartzeko eta jarduteko betekizunari buruzko jarraibide osagarriak onartzen dira.

Bestalde, a) paragrafoan aipatutako beste estatu batzuetako nazionalitatea duten pertsonen kasuan, edo Espainiakoaz gain beste nazionalitate bat dutenen kasuan, gainera, desgaituta edo egoera baliokidean ez egotea, eta jatorrizko herrialdean edo nazionalak diren herrialdean funtzio publikoan sartzea eragozten duen diziplina-zehapenik edo zigor penalik ez izatea, bai eta beren jatorrizko herrialdean edo nazionalak diren herrialdean lanbidean adingabeekin aritzea eragozten dien delituengatik epai irmo bidez kondenatuta ez izatea ere; hau da, 1996ko urtarrilaren 15eko Lege Organikoaren 13.5 artikuluan aipatutako delituengatik kondenatuta ez egotea, Osakidetzako zuzendari nagusiaren urriaren 13ko 1314/2016 Ebazpenarekin bat etorriz.

f) Esleitutako destinoan lanean hasten den unean indarrean dagoen araudiaren arabera ezgaitasun edo bateraezintasuneko legezko kausaren batean sartuta ez egotea, horrek ematen dion aukera-eskubidea bazter utzita.

Destinoa esleitu aurretik agintaritzaren eskudunak parte hartzen den kategoria/lanpostu funtzionalarekin bat datorren ohiko lanbideari dagokion ezintasun iraunkor absolutuko edo ezintasun iraunkorreko egoera onartzen badu, atal honetan ezarritako baldintza ez da beteko. Egoera horretan dagoen pertsonak Osakidetzako Giza Baliabideen Zuzendaritzari jakinarazi beharko dio egoera hori, ezintasun iraunkorra aitortzeko jakinarazpena jasotzen duenean.

g) Jabetzan lanposturik ez izatea estatutupeko langile finko gisa, lortu nahi den kategoria berean, edozein dela ere haren administrazio-egoera.

Oinarri hauetan arautzen den prozesuan zehar, plaza jabetzan lortzen baldin bada Osasun Sistema Nazionaleko beste osasun-zerbitzu batean lortu nahi den kategoria bereko estatutupeko langile finko gisa, jakinarazi beharko zaio Osakidetzako Giza Baliabideen Zuzendaritzari gertatzen den unean.

h) Inskripzio-eskubideak ordaintzea: dagokion kategoriarako eskabideak aurkezteko epearen barruan ordaindu izana inskripzio-eskubideak.

i) Oinarri espezifikoetan eskatzen den beste edozein baldintza betetzen dela, hizkuntza-eskakizuna barne, hori sartzeko baldintza den kasuetan.

Nola jakin dezaket deialdi bakoitzean eskatzen den titulazioa?

Sartzeko titulazioak Osakidetzako Lanpostu Funtzionalen Dekretuan eta deialdi bakoitzaren oinarri espezifikoetan arautzen dira.

Zer titulazio behar dute Administrariek?

Informazioa dokumentu erantsian, dokumentuaren amaieran.

Era berean, kategoria honetan parte hartzen duten izangaiek honako modulu hauei dagozkien informatika-ezagutzak egiaztatu beharko dituzte: Microsoft Word 2000/XP/2003/2007/2010 maila aurreratua; Microsoft Power Point 2000/XP/2003/2007/2010; Microsoft Excel 2000/XP/2003/2007/2010 maila aurreratua, eta Microsoft Access 2000/XP/2003 maila aurreratua. Modulu horiek Euskadi Informazioaren Gizartean Planak eskaintzen ditu KZgunea zentro publikoetan.

Zer titulazio behar dute Administrari laguntzaileek?

Informazioa dokumentu erantsian, dokumentuaren amaieran.

Era berean, kategorian parte hartzen duten izangaiek modulu hauekin lotutako informatika-ezagutzak egiaztatu beharko dituzte: Microsoft Word 2000/XP/2003/2007/2010 maila Aurreratua eta Microsoft Excel 2000/XP/2003/2007/2010 Oinarrizkoa, Euskadi Informazioaren eta Ezagutzaren Gizartean Planak eskura jartzen dituenak Kzguneko zentro publikoetan.

Zein epe daukat Administrarirako eta Administrari Laguntzailerako IT Txartela (betekizuna) lortzeko?

Betekizun gisa aurkeztu behar diren IT Txartelak lor daitezke kategoria bakoitzeko eskabideak aurkezteko epearen azken egunera arte, hurrenez hurren.

Zer titulazio behar dute Erradiodiagnostikoko Teknikariek eta Erradioterapiako Teknikariek?

Informazioa dokumentu erantsian, dokumentuaren amaieran

Noizko bete behar ditut hautaketa-prozesuan parte hartzeko baldintzak?

Baldintzak eskabideak aurkezteko epearen azken egunean bete behar dira, oinarrietan aurreikusten diren salbuespenetan izan ezik, eta baldintza horiek betetzen jarraitu beharko da esleitzen den destinoaz jabetu arte (Osakidetzako zuzendari nagusiaren azaroaren 25eko 1473/2021 Ebazpenaren 6.1 oinarria).

3. - PROZESUAN IZENA EMATEA

Nola eman dezaket izena?

Internet bidez egin beharko dute eskabidea, Osakidetzaren webguneko helbidean eskaintzen den eredia betez.

www.osakidetza.euskadi.eus

Salbuespenez, ondoko tokietan eskabidea aurkezteko egokituko diren lekuetara joanda egin ahal izango da: Bilbo, Donostia eta Vitoria-Gasteiz. Kokapen espezifikoa hedabideetan eta Osakidetzaren webgunean emango da.

Eskabidea Internet bidez betetzeko, Eusko Jaurlaritzaren KZgunea zentro publikoak erabili ahal izango dira, eta zentroen zerrenda helbide honetan kontsultatu ahal izango da: www.kzgunea.net

Prozesuan onartua izateko, eskabideak epe barruan eta behar den eran aurkeztu behar dira, aurreikusitako bi modalitateetako edozeinetan, eta inskripzio-eskubideak ordaindu behar dira.

Nola ordain ditzaket izena emateko eskubideak?

Izena emateko eskubideak diru-laguntzak aurkezteko epearen barruan ordaindu beharko dira, honako erakunde laguntzaileetako edozeinetan: Kutxabank, Euskadi Kutxa/Caja Laboral, La Caixa eta BBVA. Erakunde horien sukurtsaletan ordaintzea aukeratuz gero, eskabide-orria aurkeztu beharko da finantza-erakunde laguntzailean, eta erakunde horrek, ordainketa egin ondoren, mekanikoki baliozkotuko du.

Internet bidez ordaintzea aukeratuz gero, eskabidean inskripzio-eskubideak ordaintzeko aurreikusitako atalak bete beharko dira.

Eskabidea betetzeko, inskripzio-eskubideak ordaindu beharko dira dagokion zenbatekoan, deialdi bakoitzeko oinarri espezifikoak jasotzen dituen ebazpenean xedatutakoaren arabera eta arlo horretan indarrean dagoen araudiaren arabera.

Inskripzio-eskubideak eskabideak aurkezteko epearen barnean ordaindu ezean, izangaia prozesutik kanpo geratuko da. Aurrekoa gorabehera, izangaiak zuzendu ahal izango du ordaindutako zenbatekoan egindako akatsa, onartuen eta baztertuen behin-behineko zerrenda argitaratzen duen Ebazpenaren aurkako erreklamazioa egiteko epearen azken egunera arte.

Zer epe daukat eskabidea aurkezteko eta izena emateko eskubideak ordaintzeko?

Deialdi bakoitzeko oinarri espezifikoen adierazten den epean, hilabeteko epea egongo da eskabidea aurkezteko eta izena emateko eskubideak ordaintzeko. Epe hori deialdiaren azken eguneko 14:00etan amaituko da. Salbuespen gisa, deialdiaren inguruabarrek hala eskatzen dutenean, hilabeteko epea luzatu ahal izango da oinarri espezifikoak jasotzen dituen ebazpenak ezartzen duen epean.

2022ko apirilaren 4, 5, 6 eta 12an egingo den deialdiko kategorietan parte hartzeko eskabideak aurkezteko epea maiatzaren 3tik 2022ko ekainaren 2ko 14: 00etara luzatuko da.

Zein txandatan parte har dezaket?

Bi txandetako batean soilik parte har daiteke: irekian edo barne-sustapenean, oinarri espezifikoek hala adierazten duten kategorietan.

Txanda bakoitzaren barruan, zeintzuk dira sartzeko kupo eta modalitateak?

Txanda bakoitzaren barruan (barne-sustapena eta txanda irekia), sartzeko modalitate orokor bat eta desgaitasuna duten pertsonentzako erreserba-kupo bat daude, oinarri espezifikoek hala adierazten duten kategorietan.

Desgaitasuna duten pertsonentzat gordetako kupo horretan bi modalitate daude:

- Adimen-desgaitasuna duten pertsonentzako kupo
- Kupo- bestelako desgaitasunen kupo (adimen-desgaitasun ez den beste edozein):

Zer baldintza bete behar ditut barne-sustapeneko txandan parte hartzeko?

Baldintza orokorrak betetzeaz gain, honako hauek ere bete behar ditut:

a) Langile finkoa izatea eta zerbitzu aktiboan, senideak zaintzeko eszedentzian, genero-indarkeriagatiko eszedentzian edo zerbitzu berezietan egotea aukeratu duen kategoria ez den beste kategoria batean eta, hala badagokio, lanpostu funtzional batean, betiere sartzeko eskatzen den titulua jatorrizko kategoriaren kategoria berekoa edo goragokoa bada; egoera horretan jarraitu beharko du esleitzen zaion destinoaz jabetu arte.

Kategoria desberdintzat hartzen dira titulazio akademiko edo espezialitate jakin bat izatea eskatzen ez dutenak eta hautaketa-prozesu berezien bidez sartzten direnak, edo espezialitate bera eskatu arren, eremu asistentzial desberdinetakoak direnak (lehen mailako arreta edo arreta espezializatua).

b) Osakidetza finko gisa jatorrizko kategorian eta, hala badagokio, lanpostu funtzionalean bi urteko zerbitzua bete izana.

Ezin izango dute txanda honetan parte hartu kategoria eta lanpostu funtzional bereko langile finkoak diren izangaiek.

Barne-sustapeneko txandan izena ematen badut eta eskabideak aurkezteko azken egunean baldintzak betetzen ez baditut, zer gertatzen da nire eskaerarekin?

Kasu horretan, eskaera txanda irekira eramango da automatikoki, eta horrela argitaratuko da onartuen eta baztertuen behin-behineko zerrenda jasotzen duen ebazpenean.

Barne-sustapeneko txandan izena ematen badut, eskabideak aurkezteko azken egunean txanda horretan parte hartzeko baldintzak betetzen baditut; barne-sustapeneko txanda honetan onartuta banago eta txanda horretako baldintzak betetzeari uzten badiot esleitzen didaten destinoaz jabetu aurretik. Zer gertatzen da nire eskaerarekin?

Kasu honetan, prozesutik kanpo geratuko zara: langile finkoa izateari eta zerbitzu aktiboko egoeran, senideak zaintzeko eszedentzian, genero-indarkeriagatiko edo zerbitzu bereziengatiko eszedentzian egoteari uzten badiozu, lortu nahi duzun kategorian eta, hala badagokio, jatorrizko lanpostu funtzionalean, betiere lortu nahi denaren ezberdina denean.

Non adierazten da txanda bakoitzean deitutako eta desgaitasuna duten pertsonen betetzeko erreserbatutako plazen kopurua?

Kategoria bakoitzeko oinarri espezifikoetan txanda bakoitzean deitzen diren lanpostuen kopurua eta, hala bada, desgaitasuna dutenek betetzeko gordetako lanpostuen kopurua adieraziko dira.

Administrazioko organo eskudunak (foru aldundietako sail eskuduna, IMSERSO edo baliokidea) ebazpen bidez adimen-desgaitasuna aitortu dit, eta horrek eskabideak aurkezteko azken egunean izango ditu ondorioak. Zein txanda eta kupo-modalitatetan eman dezaket izena?

Adimen-desgaitasunaren kupoan izena eman dezaket, baldin eta parte hartu nahi dudan kategoriaren oinarri espezifikoetan kupo hori badago barne-sustapeneko txandan edo txanda irekian.

Parte hartu nahi dudan kategoriaren oinarri espezifikoetan kupo hori ez badago barne-sustapeneko txandaren edo txanda irekiaren barruan, beste desgaitasun batzuen kupoan inskriba naiteke (adimen-desgaitasuna ez den beste edozein desgaitasun).

Parte hartu nahi dudan kategoriaren oinarri espezifikoetan ez badago desgaitasuna duten pertsonentzako erreserba-kuporik, izena eman dezaket barne-sustapeneko txandaren sarbide orokorrean, txanda horren edo txanda irekiaren baldintzak betetzen baditut.

Administrazioko organo eskudunak (foru aldundietako sail eskuduna, IMSERSO edo baliokidea) ebazpen bidez adimen-desgaitasuna ez den % 33ko edo gehiagoko desgaitasuna aitortu dit, eta horrek eskabideak aurkezteko azken egunean izango ditu ondorioak. Zein txanda eta kupo-modalitatetan eman dezaket izena?

Beste desgaitasun batzuk (adimen-desgaitasuna ez den beste edozein desgaitasun) kupoan eman dezaket izena, baldin eta parte hartu nahi dudan kategoriaren oinarri espezifikoetan kupo hori badago barne-sustapeneko txandan edo txanda irekian.

Parte hartu nahi dudan kategoriaren oinarri espezifikoetan ez badago desgaitasuna duten pertsonentzako erreserba-kuporik, izena eman dezaket barne-sustapeneko txandaren sarbide orokorrean.

Adimen-desgaitasunaren kupoan parte hartzea eskatzen badut, nola eta noiz egiaztatu behar dut agiri bidez adimen-desgaitasuna?

Adimen-desgaitasuna egiaztatzeko, adimen-desgaitasuna aitortzeko ebazpenaren fotokopia konpultsatua aurkeztu beharko da. Ebazpen hori Administrazioko organo eskudunak (foru-aldundietako sail eskudunak, IMSERSOk edo baliokideak) emango du, eta eskaerak aurkezteko epearen azken egunetik aurrera izango ditu ondorioak.

Dokumentazio hori hautaketa-prozesuan izena emateko epean aurkeztu beharko da, eta, salbuespen gisa, epe hori amaitu eta hurrengo hilabetean.

Zer gertatzen da adimen-desgaitasuneko kupoan parte hartzeko nire eskabidearekin hori egiaztatzen ez badut?

Eskabidea bestelako desgaitasunen kupora (adimen-desgaitasuna ez den beste edozein desgaitasun) bidaliko da, horretarako baldintzak betetzen badituz, edo, hala badagokio, sarbide orokorreko modalitatera.

Nola eta noiz egiaztatu behar dut agiri bidez adimen-desgaitasuna ez den beste edozein desgaitasun?

Adimen-desgaitasuna ez den % 33ko edo gehiagoko beste edozein desgaitasun egiaztatzeko, desgaitasuna aitortzeko ebazpenaren fotokopia konpultsatua aurkeztu beharko da. Ebazpen hori Administrazioko organo eskudunak (foru-aldundietako sail eskudunak, IMSERSOk edo baliokideak) emango du, eta eskaerak aurkezteko epearen azken egunetik aurrera izango ditu ondorioak.

Dokumentazio hori oposizioaldia gainditu dutenen zerrenda argitaratu ondoren aurkeztu beharko da, baldintzak eta merezimenduak alegatzeko ezarritako epean.

Zer gertatzen da bestelako desgaitasunen kupoan (adimen-desgaitasuna ez den beste edozein desgaitasun) parte hartzeko nire eskabidearekin hori egiaztatzen ez badut?

Eskaera sarbide orokorreko modalitatera eramango da, horretarako baldintzak betetzen baditu.

Aukera al dezaket 2016-2017ko EPEko oposizioaldiko nota gordetzea?

12.6.– Oposizio-fasean nota gordetzeko aukera hautatzea.

Parte hartzeko baldintzak betetzen dituzten eta 2016-2017ko eta 2018-2019ko EPE-etan parte hartu duten pertsonak honako aukera hauetako bat baliatu ahal izango du:

A aukera.– 2018-2019ko EPErako gordetzea 2016-2017ko EPEko hautaketa-prozesuko oposizio-fasean lortutako nota. Horretarako, aukera hori baliatzen duen pertsonak honako baldintza hauek guztiak bete beharko ditu:

a) 2016-2017ko EPEko oposizio-fasea gainditu izana.

b) 2018-2019ko EPEan izena ematea eta tasak ordaintzea.

c) 2016-2017ko EPEko nota gordetzeko aukera berariaz adieraztea 2018-2019ko EPEan parte hartzeko eskabidean.

Kasu horretan, 2018-2019ko EPEko oposizio-faseko probak edozein arrazoirengatik egiten dituenari B aukeraren tratamendua aplikatuko zaio, eta, beraz, zuzenean esleituko zaio hautaketa-prozesu horien oposizio-fasean lortutako notarik altuena, betiere faseak gainditzen baditu.

B aukera. – 2016-2017ko EPEko eta 2018-2019ko EPEko oposizio-faseko probak egitea. Ondoren, 2018-2019ko lan-eskaintza publikoan, zuzenean esleituko zaio hautaketa-prozesu horietako oposizio-fasean lortutako notarik altuena. Aukera hori baliatu ahal izateko, 2016-2017ko eta 2018-2019ko EPE-ei dagozkien hautaketa-prozesuak gainditu behar ditu izangaiak.

Hala ere, B aukera hautatu eta 2018-2019ko EPEko oposizio-faseko azterketa egiten ez duenari A aukeran ezarritako nota gordetzeko irizpideak aplikatuko zaizkio, betiere 2016-2017ko EPEko oposizio-fasea gainditu bazuen.

Nolanahi ere, aukera horiek 2018-2019ko EPEaren deialdian baino ez dira aplikatuko, baldin eta gai-zerrendaren eta ariketen edukia eta horiek kalifikatzeko modua analogoak badira.

12.7.– Oposizioaldiko nota gordetzeko aukera aplikatzeko, beharrezkoa izango da interesdunak txanda berean parte hartzea (barne-sustapena ala txanda librea), eta, hala badagokio, desgaitasun-kupo berean (adimen-desgaitasuna edo bestelako desgaitasunak) prozesu bietan, bai 2016-17ko EPEan, bai 2018-19koan.

12.8.- 2018-2019ko EPEan 2016-2017ko EPEan lortutako oposizio-faseko nota gordetzeko aukera aplikatzeko, izangaiak oinarri hauetan ezarritako parte hartzeko baldintzak bete behar dituzte: 6.2. a) Nazionalitatea, b) Adina, c) Titulua, e) Banandua ez egotea eta desgaitua ez egotea, g) Ez izatea estatutupeko lanposturik jabetzan eta h) Aipatutako 2016-17ko EPE hautaketa-prozesuan izena emateko eskubideak ordaintzea.

12.9.– Parte hartzeko eskabidean B aukera hautatu eta 2018-19ko EPEko oposizio-faseko proba egitera joaten diren izangaiak edo A aukera hautatu eta aipatu probara joaten direnei, behin azterketa-gunean identifikatu ondoren, ez zaie inola ere A aukera aplikatuko, eta ulertuko da 2018-19ko EPEko oposizio-faseko azterketa egin dutela, B aukeran jasotakoari jarraikiz.

Izangaiak, azterketa-gunean identifikatu ondoren, ezin izango dira atera azterketa-gunetik erantzun-orria entregatu gabe.

Zer epe daukat hizkuntza-eskakizuna merezimendu gisa lortzeko?

Merezimendutzat hartuko da dagokion deialdia gainditu dutenen zerrenda jasotzen duen ebazpena argitaratzen denean aurreikusitako epearen barruan behar bezala egiaztatutako hizkuntza-eskakizuna, edo hautaketa-prozesu honetan dagokion kategoriarako berariaz deitutako egiaztapen-proben bidez lortutakoa.

Noiz eman dezaket izena 2018-2019ko lan-eskaintza publikoaren esparruan hizkuntza-eskakizunak egiaztatzeko deitutako probetan?

Izena emateko eskabidean bertan adierazi behar dut.

Zer epe daukat hizkuntza-eskakizuna lortzeko derrigortasun-data igarota duten lanpostuak eskuratzeko baldintza gisa?

Eskakizun gisa hartzeko, hizkuntza-eskakizuna destinoak aukeratzeko epea amaitu arte aurkeztu ahal izango da.

4. KONTAKTUA INFORMAZIORAKO

Zalantzarik izanez gero, nora jo dezaket?

2018-2019ko EPEren webgunean aurkituko dituzu eskaera egiteko beharrezko jarraibideak. Dokumentu bat ere badu, «ohiko galderekin», eta lagungarria izan daiteke prozesu horri buruzko zalantzak argitzeko.

- Hautaketa-prozesuan **izena emateari buruzko kontsulta edo gorabeheraren** bat baduzu, [formulario](#) honen bidez jakinarazi behar duzu.
- **Beste gai batzuetarako**, Hautaketa eta Hornikuntza Zerbitzuarekin jar zaitezke harremanetan:

Helbide elektronikoa: epe-ope@osakidetza.eus

Telefonoa: 945006150

Aurrez aurreko arreta:

Osakidetzako Zuzendaritza Nagusia: Araba kalea, 45 – Vitoria-Gasteiz

Ordutegia: astelehenetik ostegunera 9:00etatik 13:30era eta 15:00etatik 16:30era
ostiraletan: 9:00etatik 14:00etara

Ekainaren 1etik irailaren 30era goizeko 9: 00etatik 14: 00etara soilik.

5. IZENA EMATEKO ESKABIDEAK

Hautaketa-prozesuetan parte hartu nahi dutenek eskabidea Internet bidez egin beharko dute, Osakidetzaaren web-orrian ematen den eredia betez (ibilbide honetan: Enplegu Publikoa/2018-19 EPE/Aplikaziora sartu), helbide honetan:

<https://osakidetza.euskadi.eus>

Gogorarazten da eskaera onartua izateko dagokion tasa epearen barruan ordaindu behar dela.

Salbuespenez, Osakidetzaaren bulegoetara joz egin ahal izango da eskaera, honako leku hauetan:

- Bilbo:
Bilbo - Basurtu ESla / Basurtuko Unibertsitate Ospitalea. Montebideoko Etorbidea.
Jaurlaritzaren pabiloia: ezkerreko sarrera -beheko solairua
Profesionalari informazioa emateko unitatea
- Donostia:
Donostialdea ESla / Donostia Unibertsitate Ospitalea
Begiristain Paselekua, z/g.
Profesionalaren Arretarako Unitatea
- Gasteiz:
Osakidetzako Zuzendaritza Nagusia. Araba kalea, 45
Hautaketa eta Hornikuntza Zerbitzua

Vitoria-Gasteizen, 2022ko apirilaren 22a

ERANSKINA – TITULAZIOEN BALIOKIDETASUNAK-

ADMINISTRARIA

1.1 OSAKIDETZA ENTE PUBLIKOAREN LANPOSTU FUNTZIONALAK ARAUTZEN DITUEN UZTAILAREN 19KO 186/2005 DEKRETUAN ADMINISTRARIAK LANPOSTU FUNTZIONALETARAKO ESKATZEN DEN TITULAZIOA

ADMINISTRARIA	Administrazioko eta Finantzetako Goi Mailako Teknikaria, Idazkaritzako Goi Mailako Teknikaria, Titulazio baliokidea*
---------------	--

1.2 ADMINISTRARIA LANPOSTU FUNTZIONALERAKO LANPOSTU FUNTZIONALEN DEKRETUAN EZARRITAKO TITULAZIOEN BALIOKIDEAK.

TEKNIKARI LAGUNTZAILEA, 14/1970 LEGEARENA , abuztuaren 4koa, Hezkuntzako eta Hezkuntzako Erreformako Finantzazioaren gainekoa.
TEKNIKARI ESPEZIALISTA (BIGARREN MAILAKO LH ETA III. MAILAKO LANBIDE-MODULUAK), 1/1990 LEGE ORGANIKOARENA , urriaren 3koa, Hezkuntza Sistemaren Antolamendu Orokorrekoa.
DAGOKION ESPEZIALITATEKO GOI MAILAKO TEKNIKARIA, 777/1998 ERREGE-DEKRETUKOA (Administrazioko eta Finantzetako Goi Mailako Teknikaria, Idazkaritzako Goi Mailako Teknikaria).
Batxilergoko titulua (BBB, 14/1970 Legea) . Goi Mailako Batxilergoko edozein titulu (orokorra, lanekoa edo teknikoa).
Goi mailako lanbide-heziketara, arte plastikoetako eta diseinuko goi mailako ikasketa profesionaletara eta goi mailako kirol-irakaskuntzetara sartzeko proba gainditu izana Batxilergoko tituluaren baliokidea izango da, enplegu publiko eta pribatuetan sartzeko soilik, eta betiere Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako graduatu-titulua edo baliokidea duela egiaztatzen badu.

<p>Hemeretzi urtetik gorakoak goi mailako arte-irakaskuntzetara sartzeko proba batxiler-titulua baliokidea izango da, enplegu publiko eta pribatuetan sartzeko soilik, baldin eta honako baldintza hauetakoren bat betetzen dela egiaztatzen bada:</p> <ul style="list-style-type: none">• Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako graduatu-titulua edo ondorio akademikoetarako baliokidea den titulu bat izatea.• EDU/1603/2009 Aginduaren 3. artikuluko 1. puntuaren ezarritako baliokidetasuna izatea. <p>Gutxienez goi mailako 15 ECTS kreditu gainditu izana (kontuan hartu Aginduaren 5. xedapen gehigarria). EDU/1603/2009, EDU/520/2011 Aginduaren arabera), goi mailako arte-irakaskuntzei buruzkoa.</p>
<p>Hogeita bost urtetik gorakoentzako unibertsitatera sartzeko proba gainditzea, betiere baldintza hauetakoren bat betetzen dela egiaztatzen bada, edo Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako graduatu-titulua edo ondorio akademikoetarako edo profesionaletarako baliokidea den titulu bat izatea, edo unibertsitate-ikasketen gutxienez 15 ECTS kreditu gainditu izana (kontuan hartu EDU/1603/2009 Aginduaren 5. xedapen gehigarria, EDU/520/2011 Aginduak aldatua).</p> <p>EDU/520/2011 Aginduaren 3.5 artikuluan ezarritakoaren arabera lortutako lanbide-ondorioetarako, ez da baliozkoa izango DBHOko graduatu-tituluekiko baliokidetasuna. LOGSE baino lehenagoko batxilergoren bateko ikasketa partzialak, Oinarrizko Batxilergoa izan ezik, betiere egiaztatzen bada dagokion batxilergoko goi- edo errebalida-mailako proba edo gehienez bi ikasgai gainditu gabe zituela.</p>
<p>LHko edo Arte Plastiko eta Diseinuko teknikari-titulua edo kirol-teknikaria, edozein modalitatetan.</p>
<p>Teknikari laguntzailearen titulua, 14/1970 Lege Orokorrekoa.</p>
<p>EDU/520/2011 Aginduaren II. eranskinean zerrendatutako arte-irakaskuntzetako ikasketa jakin batzuk gainditu izana dokumentu ofizialen bidez egiaztatzea.* * Hezkuntza-administrazioak banakako ebazpena eman behar du, dokumentazioa egiaztatzeko.</p>

Erregulatzeko araudia: 2/2006 Lege Organikoa, maiatzaren 3koa, Hezkuntzari buruzkoa (BOE, 2006ko maiatzaren 4koa); EDU/1603/2009 Agindua, Hezkuntza Lege Organikoan araututako Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako Graduatu eta Batxilergoko tituluekiko baliokidetasunak ezartzen dituen (EDU/520/2011 Aginduak aldatua).

ADMINISTRAZIOKO LAGUNTZAILEA

LANPOSTU FUNTZIONALEI BURUZKO DEKRETUAN ADMINISTRAZIOKO LAGUNTZAILEEN ETA ERABILTZAILAEN ARRETAKO LANGILEAREN LANPOSTU FUNTZIONALERAKO EZARRITAKO TITULAZIOEN BALIOKIDEAK

TEKNIKARI LAGUNTZAILEA , Hezkuntzari eta Hezkuntza Erreformaren Finantzaketari buruzko abuztuaren 4ko 14/1970 LEGEARENA .
TEKNIKARI LAGUNTZAILEA (LEHEN MAILAKO LH ETA II. MAILAKO MODULU ESPERIMENTALAK) , Hezkuntza Sistemaren Antolamendu Orokorrari buruzko urriaren 3ko 1/1990 LEGE ORGANIKOARENA .
777/1998 ERREGE-DEKRETUKO DAGOKION LANBIDEKO TEKNIKARIA (aztergai dugun kasuan, administrazio-kudeaketako teknikaria).
Eskola-graduatuaren ziurtagiria.
Giza Zientzietako 6 ikasturte oso eta, gutxienez, Filosofiako ikasturte oso bat, edo bestela, Giza Zientzietako 5 ikasturte oso eta eliza-ikasketen Filosofiako gutxienez 2.
25 urtetik gorakoek unibertsitatean sartzeko proba gaindituta izatea.
Hauetan sartzeko proba gainditzea: <ul style="list-style-type: none">• erdi- edo goi-mailako arte plastikoetako eta diseinuko ikasketa profesionalak,• erdi- edo goi-mailako lanbide-heziketa,• erdi edo goi mailako kirol ikasketak,• goi-mailako arte-irakaskuntzak 19 urtetik gorakoentzat
eta baldintza hauetako gutxienez bat ziurtagiri bidez frogatzea: <ul style="list-style-type: none">• Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako lehen bi ikasturteetako ikasgai guztiak gainditzea.• Erdi-mailako heziketa-zikloa eginda izatea eta heziketa-zikloaren iraupen osoaren erdia, gutxienez, osatzen duten lanbide-moduluen kopurua gaindituta izatea.• Goi-mailako zikloa eginda izatea eta heziketa-zikloaren iraupen osoaren herena, gutxienez, osatzen duten lanbide-moduluen kopurua gaindituta izatea.• Goi-mailako gutxienez 10 ECTS kreditu gainditu izana (EDU/1603/2009 Aginduaren 5. xedapen gehigarria kontuan hartzea, EDU/520/2011 Aginduaren idazketaren arabera) goi-mailako arte-irakaskuntzetan.• DBHko hirugarren mailan sartzeko Espainiako hezkuntza-sisteman eskatzen den eskolatz-mailaren baliokideak diren atzerriko ikasketak izatea egiaztatzea.• Helduentzako bigarren hezkuntzako I. mailako esparru guztiak gainditzea.

Oinarrizko Batxilergoko edozein titulu izatea edo honako hauek gainditzea:

- a) Batxilergoko lau ikasturte oso, abuztuaren 4ko 14/1970 Legearen aurreko edozein ikasketa-planengatik, proba orokorrik edo errebalidarik gabe.
- b) Batxilergo teknikoko edo lan-batxilergoko bost urte, multzo-probarik gabe edo errebalidarik gabe.
- c) Eliza-karreraren Giza Zientzietako lau ikasturte oso.

1945/07/17 Legearen eta 21/12/1965 Legearen ondoriozko Lehen Mailako Ikasketen Ziurtagiria.

Lehen mailako ikasketen ziurtagiria lortzeko baldintzak bete izanaren egiaztatzea.

* Egiaztatu nahi den dokumentazioari dagokion hezkuntza-administrazioak emandako banakako ebazpena beharrezkoa da.

Erregulatzeko araudia: 2/2006 Lege Organikoa, maiatzaren 3koa, Hezkuntzari buruzkoa (2006ko maiatzaren 4ko BOE), EDU/1603/2009 Agindua –EDU/520/2011 Agindu bidez aldatua–, zeinaren bidez Hezkuntzari buruzko Lege Organikoan araututako Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako eta Batxilergoko graduatu-tituluekin baliokidetasunak ezartzen baitira.

LANPOSTU FUNTZIONALEN DEKRETUAN ERRADIODIAGNOSTIKOKO TEKNIKARIA ETA ERRADIOTERAPIAKO TEKNIKARIA
LANPOSTU FUNTZIONALERAKO ETA HORIEN BALIOKIDETZETARAKO ESKATZEN DEN TITULAZIOA.

LANPOSTU FUNTZIONALA	Lanpostu funtzionalen Dekretuan eskatzen diren titulazioak	Titulazio baliokideak apirilaren 30eko 777/1998 Errege Dekretuan, hezkuntza-sistemaren eremuan Lanbide Heziketaren antolamenduaren zenbait alderdi garatzen dituenen.	Titulazio berriak: Horiek sortzeko dekretuetan ezarritako baliokidetasunak.
ERRADIODIAGNOSTIKOKO TEKNIKARIA	Diagnosi-irudiko Goi Mailako Teknikaria	Erradiodiagnostikoko teknikari espezialista	Diagnosi-irudiko eta Medikuntza Nuklearreko Goi Mailako Teknikaria, irailaren 12ko 770/2014 Errege Dekretuaren bidez sortua
ERRADIOTERAPIAKO TEKNIKARIA	Erradioterapiako Goi Mailako Teknikaria	Erradioterapiako Teknikari Espezialista Medikuntza Nuklearreko Teknikari Espezialista	Erradioterapiako eta Dosimetriako Goi Mailako Teknikaria, irailaren 12ko 772/2014 Errege Dekretuaren bidez sortua

**LANPOSTU FUNTZIONALEI BURUZKO DEKRETUAN MANTENTZE-LANETAKO OFIZIALAREN LANPOSTU FUNTZIONALERAKO
ESKATZEN DEN TITULAZIOA ETA HORIEN BALIOKIDETASUNAK.**

LANPOSTU FUNTZIONALAK	Lanpostu funtzionalei buruzko Eskatzen diren titulazioak	Titulazio baliokideak Hezkuntza-sistemaren esparruan lanbide-heziketaren antolamenduaren zenbait alderdi garatzen dituen apirilaren 30eko 777/1998 Errege Dekretuan.	Titulazio berriak: Horiek sortzeko dekretuetan ezarritako baliokidetasunak.
INSTALAZIOEN MANTENTZE-LANETAKO OFIZIALA	TEKNIKARIA (mantentze-lanetako ofizialaren titulazioak)		
MANTENTZE-LAN ELEKTRIKOETAKO OFIZIALA	Ekipamendu eta instalazio elektroteknikoetako teknikariaren titulua	Elektrizitateko teknikari laguntzailea (Elektrizitatea eta Elektronika) * Elektrizitateko instalatzaile-mantentzailea (Elektrizitatea eta Elektronika)	Instalazio elektriko eta automatikoetako teknikariaren titulua, otsailaren 8ko 177/2008 Errege Dekretuaren bidez sortua.
MANTENTZE-LAN MEKANIKOETAKO OFIZIALA	Makineriako eta linea-gidaritzako instalazio eta mantentze-lan elektromekanikoetako teknikaria	* Lineako mantentze-lanak (metala) * Mantentze-lan industrialak (metala)	Mantentze-lan elektromekanikoetako teknikaria, azaroaren 4ko 1589/2011 Errege Dekretu bidez sortua.

LANPOSTU FUNTZIONALAK	Lanpostu buruzko eskatzen dituzten funtzionalei Dekretuan diren titulazioak	Titulazio baliokideak Hezkuntza-sistemaren esparruan lanbide-heziketaren antolamenduaren zenbait alderdi garatzen dituen apirilaren 30eko 777/1998 Errege Dekretuan.	Titulazio berriak: Horiek sortzeko dekretuetan ezarritako baliokidetasunak.
BEROKUNTZAKO ETA ITURGINTZAKO MANTENTZE-LANETAKO OFIZIALA	Hotzeko, klimatizazioko eta bero-sorkuntzako muntaketako eta mantentze-lanetako teknikaria	Iturgintzako teknikari laguntzailea (eraikuntza eta obrak) * Ur, gas eta berokuntzako instalazioak (eraikuntza eta obrak) * Hotz- eta bero-ekipamenduen instalazioa eta mantentze-lanak (elektrizitatea eta elektronika)	Bero-sorkuntzako instalazioetako teknikariaren titulua, abenduaren 30eko 1792/2010 Errege Dekretuaren bidez sortua. Hozte- eta klimatizazio-instalazioen teknikariaren titulua, abenduaren 30eko 1793/2010 Errege Dekretuaren bidez sortua.
IGELTSEOTZAKO MANTENTZE-LANETAKO OFIZIALA	Igeltserotza-obretako teknikaria	- Igeltserotzako teknikari laguntzailea (eraikuntza eta obrak) - Teilatu-emaile teknikari laguntzailea (eraikuntza eta obrak) * Igeltserotza (eraikuntza eta obrak) * Eraikin-estalketa (eraikuntza eta obrak)	Eraikuntza-teknikaria, azaroaren 4ko 1575/2011 Errege Dekretu bidez sortua.
ZURGINTZAKO MANTENTZE-LANETAKO OFIZIALA	Zurgintza-instalazioen eta altzarien neurrirako fabrikazioko teknikaria	- Zurgintzako teknikari laguntzailea (zura) * Zurgintza eta altzariak (zura)	Altzari-instalazioko eta -hornikuntzako teknikariaren titulua, ekainaren 24ko 880/2011 Errege Dekretuaren bidez sortua.

LANPOSTU FUNTZIONALAK	Lanpostu funtzionalei buruzko eskatzen Dekretuan titulazioak diren	Titulazio baliokideak Hezkuntza-sistemaren esparruan lanbide-heziketaren antolamenduaren zenbait alderdi garatzen dituen apirilaren 30eko 777/1998 Errege Dekretuan.	Titulazio berriak: Horiek sortzeko dekretuetan ezarritako baliokidetasunak.
PINTURAKO MANTENTZE- LANETAKO OFIZIALA	Eraikuntza-akaberetako teknikaria	<ul style="list-style-type: none"> - Dekorazio-pintura (eraikuntza eta obrak) - Pintura (eraikuntza eta obrak) - Dekorazioa (eraikuntza eta obrak) *Eraikuntza-akaberak (eraikuntza eta obrak) *Pintura-zaharberritzea (eraikuntza eta obrak) *Pintura-teknikak (eraikuntza eta obrak) 	Barneko obretako, dekorazioko eta zaharberritzeko teknikariaren titulua, azaroaren 18ko 1689/2011 Errege Dekretuaren bidez sortua.

LANPOSTU FUNTZIONALEI BURUZKO DEKRETUAN SUKALDARIAREN LANPOSTU FUNTZIONALERAKO ESKATZEN DEN TITULAZIOA, ETA HORIEN BALIOKIDETASUNAK.

LANPOSTU FUNTZIONALA	Lanpostu funtzionalei buruzko eskatzen diren titulazioak	Titulazio baliokideak Hezkuntza-sistemaren esparruan lanbide-heziketaren antolamenduaren zenbait alderdi garatzen dituen apirilaren 30eko 777/1998 Errege Dekretuan.	Titulazio berriak: Horiek sortzeko dekretuetan ezarritako baliokidetasunak.
SUKALDARIA	Sukaldaritzako goi-mailako teknikaria	Ostalaritzako teknikari espezialista	Sukaldaritzazuzendaritzako goi-mailako teknikaria, maiatzaren 20ko 687/2010 Errege Dekretu bidez sortua. Sukaldaritzazerbitzuen zuzendaritzako goi-mailako teknikaria, maiatzaren 20ko 687/2010 Errege Dekretu bidez sortua.

**LANPOSTU FUNTZIONALEI BURUZKO DEKRETUAN MANTENTZE-LANETAKO OFIZIALEN LANPOSTU FUNTZIONALERAKO
ESKATZEN DEN TITULAZIOA ETA HORIEN BALIOKIDETASUNAK.**

LANPOSTU FUNTZIONALA	Lanpostu funtzionalei buruzko Dekretuan eskatzen diren titulazioak	Titulazio baliokideak Hezkuntza-sistemaren esparruan lanbide-heziketaren antolamenduaren zenbait alderdi garatzen dituen apirilaren 30eko 777/1998 Errege Dekretuan.	Titulazio berriak: Horiek sortzeko dekretuetan ezarritako baliokidetasunak.
INFORMATIKAKO TEKNIKARIA	<p>Informatika-sistemen administrazioko goi-mailako teknikaria</p> <p>Aplikazio informatikoen garapeneko goi-mailako teknikaria</p>	<p>Enpresako informatikako teknikari espezialista</p> <p>Enpresako informatikako teknikari espezialista</p> <p>Enpresa-informatikako teknikari espezialista</p> <p>Kudeaketa-informatikako teknikari espezialista</p> <p>Administrazio-kudeaketako programatzaile teknikari espezialista</p> <p>Kudeaketa-aplikazioko programatzaile teknikari espezialista</p> <p>3. mailako modulu profesionala - Kudeaketa-informatikako programatzailea</p> <p>3. mailako modulu profesionala - Kudeaketa-programatzailea</p>	<p>Sareko informatika-sistemen kudeaketako goi-teknikaria, urriaren 30eko 1629/2009 Errege Dekretu bidez sortua.</p> <p>Plataforma anitzeko aplikazioen garapeneko goi-mailako teknikaria, maiatzaren 16ko 450/2010 Errege Dekretuak araututakoarekin bat.</p>

**LANPOSTU FUNTZIONALEN DEKRETUAN OFIZIAL GIDARIA LANPOSTU FUNTZIONALETARAKO
ESKATZEN DEN TITULAZIOA**

LANPOSTU FUNTZIONALA	Eskatzen diren titulazioak
ZERBITZU OROKORRETAKO OFIZIAL GIDARIA	Edozein teknikari-titulazio edo baliokidea B motako gidabaimena edo baliokidea izatea
GARRAIO SANITARIOAREN OFIZIAL GIDARIA	Edozein teknikari-titulazio edo baliokidea B motako gidabaimena edo baliokidea izatea C eta/edo D motako gidabaimena izatea (818/2009 ED) Garraio sanitarioaren profesionaltasun-ziurtagiria (710/2011 ED) edo dagokion habilitazioa (836/2012 ED)
EMERGENTZIETAKO IBILGAILUEN OFIZIAL GIDARIA	Emergentzia Sanitarioetako Teknikariaren titulua edo dagokion habilitazioa izatea (836/2012 ED) B motako gidabaimena edo baliokidea izatea C motako gidabaimena izatea (818/2009 ED)

LANPOSTU FUNTZIONALEN DEKRETUAN GIROTZE INSTALAZIOETAKO TEKNIKARIA LANPOSTU FUNTZIONALERAKO ETA HAREN BALIOKIDETZETARAKO ESKATZEN DEN TITULAZIOA

LANPOSTU FUNTZIONALA	Lanpostu funtzionalen Dekretuan eskatzen diren titulazioak	Titulazio baliokideak apirilaren 30eko 777/1998 Errege Dekretuan, hezkuntza-sistemaren eremuan Lanbide Heziketaren antolamenduaren zenbait alderdi garatzen dituzenean.	Titulazio berriak: haiek sortzeko dekretuetan ezarritako baliokidetasunak.
IROTZE INSTALAZIOETAKO TEKNIKARIA	Eraikuntzako eta Prozesuko Instalazioak Mantentzeko eta Muntatzeko Goi Mailako Teknikaria	Eguzki-energiaren aprobetxamendua (elektrizitatea eta elektronika) Eguzki-energiako ekipamenduen eta airea girotzeko ekipamenduen mantentze-lanak (elektrizitatea eta elektronika) Aire girotua eta hotza/beroa (elektrizitatea eta elektronika) Iturgintza (eraikuntza eta obrak) Hotz industrial (elektrizitatea eta elektronika) Hozteko eta girotzeko instalazioak (elektrizitatea eta elektronika) Eguzki-energiako instalazioak (elektrizitatea eta elektronika) Prozesuko instalazio termiko osagarriak (elektrizitatea eta elektronika) Hozteko eta girotzeko instalazioak (elektrizitatea eta elektronika) Zerbitzu-instalazioen eta instalazio osagarrien mantentze-lanak (elektrizitatea eta elektronika)	Instalazio Termiko eta Fluidodunen Mantentzeko Goi Mailako Teknikaria (otsailaren 15eko 220/2008 Errege Dekretua)

LANPOSTU FUNTZIONALEN DEKRETUAN INSTALAZIO ELEKTRIKOETAKO TEKNIKARIA LANPOSTU FUNTZIONALERAKO ETA HAREN BALIOKIDETZETARAKO ESKATZEN DEN TITULAZIOA

LANPOSTU FUNTZIONALA	Lanpostu funtzionalen Dekretuan eskatzen diren titulazioak	Titulazio baliokideak apirilaren 30eko 777/1998 Errege Dekretuan, hezkuntza-sistemaren eremuan Lanbide Heziketaren antolamenduaren zenbait alderdi garatzen dituzenean.	Titulazio berriak: haiek sortzeko dekretuetan ezarritako baliokidetasunak.
<p align="center">INSTALAZIO ELEKTRIKOETAKO TEKNIKARIA</p>	<p align="center">Instalazio Elektroteknikoetako Goi Mailako Teknikaria</p>	<p>Instalazio eta linea elektrikoak (elektrizitatea eta elektronika)</p> <p>Makina elektrikoak (elektrizitatea eta elektronika)</p> <p>Itsasontzi-elektrizitatea (elektrizitatea eta elektronika)</p>	<p>Sistema Elektrotekniko eta Automatizatuetako Goi Mailako Teknikaria (irailaren 10eko 1127/2010 Errege Dekretua)</p>

**LANPOSTU FUNTZIONALEN DEKRETUAN ELEKTROMEDIKUNTZAKO INSTALAZIOETAKO TEKNIKARIA
LANPOSTU FUNTZIONALERAKO ETA HAREN BALIOKIDETZETARAKO ESKATZEN DEN TITULAZIOA**

LANPOSTU FUNTZIONALA	Lanpostu funtzionalen Dekretuan eskatzen diren titulazioak	Titulazio baliokideak apirilaren 30eko 777/1998 Errege Dekretuan, hezkuntza-sistemaren eremuan Lanbide Heziketaren antolamenduaren zenbait alderdi garatzen dituzenean.	Titulazio berriak: haiek sortzeko dekretuetan ezarritako baliokidetasunak.
ELEKTROMEDIKUNTZAKO INSTALAZIOETAKO TEKNIKARIA	Produktu Elektronikoen Garapeneko Goi Mailako Teknikaria	Elektronika industrial (elektrizitatea eta elektronika) Sistemen elektronika (elektrizitatea eta elektronika) Kontrol eta mantentze industrialeko elektronika (elektrizitatea eta elektronika) Sistema automatiko eta programagarriak (elektrizitatea eta elektronika)	Mantentze Elektronikoko Goi Mailako Teknikaria - Azaroaren 4ko 1578/2011 Errege Dekretua